

KULTURA BATZORDEKO BURUARI ESKAKIZUNA

Herrerako Euskal Kultur Taldeak, Altzan Euskaraz kanpaina barruan, hurrengo bi ekintzaren berri eman nahi dizugu.

- Bata, Rock emanaldia, Hertzainak eta Jotakie taldeekin, Abenduaren 20an gaueko 10etan Herrerako pilotalekuan.
- Bestea, Euskal kantaldia, Benito Lertxundirekin, 1986ko Urtarrilaren 18an gaueko 10etan Altzako pilotalekuan.

Bi ekitaldi hauek Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu duen "Euskal kantagintza Herrietan zehar" zirkuitoaren barnean kokatzen dira. Haiekin hitzegin dugu jadanik, eta taldeen gustuak betetzen ditu, propaganda eta aretoa gure kontura uzten dutelarik. Baita ere, esan ziguten tramite guztiak Donostiako Udalaren bidez egin behar genituela, zuk gidatzen duzun kultura batzordearen bidez, hain zuzen. Beraz, gure eskakizuna hauxe da:

ROCK KANTALDIA

- Herrerako pelotalekua, 20 egunean arratsalde osoz libre uztea, taldeek soinu ekipoak monta ditzaten.
- Ekipoaren alokairua, beharrik baldin badago.
- Argi indarra. Iberduerorekin konponketa. "Toma" 10.000 watiokoa izango litzateke.
- Tabladoa (10 x 8)
- 30 hesi
- Propaganda ordaintzea (500 tira). 30.000 pezeta.

EUSKAL KANTALDIA

- Urtarrilak 18an Altzako pilotalekua arratsalde osoz libre uztea.
- Ekipoaren alokairua, beharrik baldin badago.
- 6.000 watioko argindarra. Iberduerokin konponketa.
- Tabladoa (10 x 8)
- 30 hesi
- Propaganda ordaintzea (30.000 pezeta) 500 tira.

Gure asmoa bi ekitaldiok doanik egitea izango litzateke, baina horretarako zuri eskatutako laguntza beharko genuke. Horrela ez bada, geure kontura egin beharko genuke aipatutakoa, eta sarrera kobratu beharrean aurkituko gineteke.

Besterik gabe, ahal den azkarren, zure erantzunaren zai gelditzen gara, baikor izango delakoaren itxaropenarekin. Agur bero bat

HERRERAKO EUSKAL KULTUR TALDEA (ALTZAN EUSKARAZ)